

BESTELAKO XEDAPENAK

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

3250

AGINDUA, 2016ko ekainaren 20koa, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena, lanpostuak baloratzeko batzordea osatuko duten kideak izendatzen dituen 2005ko abenduaren 21eko Agindua aldatzen duena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomiadunetako lanpostuen balorazio-batzordea sortzen du apirilaren 12ko /2005 Dekretuak. Ogasun eta Herri Administrazio Saileko Funtzio Publikoaren Sailburuordetzari atxikita egongo da batzorde hori, eta helburu hauek ditu: baloratzeko bidaltzen zaizkion lanpostuak aztertzea eta lanpostu bakoitzari balioa egozte, berari dagokion antolaera-egituraren barruan.

Aipatutako dekretu honen 5. eta 6. artikulua kontuan harturik,

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Lanpostuen balorazio-batzordea osatzeko kideak izendatzea; hain zuzen, ELA zentral sindikalaren izenean jardungo duen batzordekide hau izendatzea.

Xabier Amatria Cuesta jauna (Ana Rosa Nájera andrearen ordean).

AZKEN XEDAPENA

Agindu honek ondorioak ekarriko ditu Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko ekainaren 20a.

Herri Administrazio eta Justiziako sailburua,
JOSU IÑAKI ERKOREKA GERVASIO.